







# PERTSONEN OSASUNA HELBURU



*Eusko Jaurlaritzak, gizarte-politikan duen konpromisoari esker, diru-laguntzak ematen ditu koordainketa farmazeutikorako, Euskadin beharrezko duen inork osasun-tratamendua ez uzteko eta pertsona horren osasuna eta populazioarena bermatzeko aldi berean. Indarrean jarri zenetik, 2013ko uztailean, Eusko Jaurlaritzak 22 milioi euro bideratu ditu koordainketa laguntzetarako.*

## NORK ESKA DITZAKE?

➤ **Gizarte Segurantzako pentsiodunek** (eta bere onuradunek), baldin eta 18.000 € baino gutxiagoko errentak badauzkate eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-txartela badaukate (OTI).

➤ **MUFACE, MUGEJU** edo **ISFASeko pentsiodunek** (eta bere onuradunek), baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik badaude eta 18.000 € baino gutxiagoko sarrerak badituzte.

➤ **Langabezian daudenek** (eta bere onuradunek), ez baldin badaukate ez langabezia-saririk ez Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-txartela badaukate.

➤ **Immigranteek**, egoera irregularrean badaude eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-txartela badaukate.



## ESKABIDEAK

Eskabidea egiteko, inprimaki bat bete eta aurkeztu behar da. Honako lekuetan aurki daiteke:

- Osakidetza **osasun-etxeetan** edo **ambulatorioetan**.
- Osasun Sailaren **lurralde-ordezkaritzetan**: Gasteizen, Bilbon eta Donostian.
- **Zuzenean** zerbitzuko arreta-guneetan.
- Osakidetza **web** orrian:

[www.osakidetza.euskadi.eus](http://www.osakidetza.euskadi.eus)

**Euskadin egindako gastu farmazeutikoak** badira, eskabide eredu sinplifikatua aurkeztuko da eta honako hauek zehaztuko dira:

- Datu pertsonalak
- Bankuko kontu-zenbakia

**Euskaditik kanpo egindako gastu farmazeutikoak** badira, eta eskatzaileak **mutualitateetako pentsiodunak** badira, eskabide eredu arrunta aurkeztuko da eta honako hauek erantsi:

- Erosketa-tiketak.
- Tratamendu-orriak edo sendagai-errezetak.
- Laguntza jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentua. (Mutualitateetako eskatzaileek soilik).



## ESKABIDEA EGITEKO EPEAK ETA ORDAINKETAK

Eskabide sinplifikatua urtean behin baino ez da aurkeztu behar. Eskabide arrunta urtean bi aldiz aurkeztu ahal izango da, gehienez ere.

**Eskabideak aurkezteko epea abenduaren 10a arte egongo da zabalik** urtero.

Eskabide sinplifikatua ekainaren 10ean edo lehenago aurkeztu bada, laguntza bi ordainketetan jasoko da. Ekainaren 10a eta gero aurkeztu bada eskabidea, ordainketa bakarrean jasoko da laguntza, abenduan eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren. Nolanahi ere, **ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, eskabidean adierazitako kontu-zenbakian.**